

ARETXABALETAKO ESKOLAKO AGENDA “ENERGIA ETA URA”

KURTZEBARRI ESKOLA ETA
INSTITUTOKO IKASLE ETA
IRAKASLEEK EGINDAKO
LANEN AURKEZPENA



SARRERA

ARETXABALETAKO ESKOLAKO AGENDA 21: ENERGIA ETA URA

Egunon denoi:

Eskolako Agenda 21en barruan, aurten egindako lanaren berri ematera etorri gara.

Aurten ENERGIAREN eta URAREN gaiak landu ditugu, eta eskola barruko diagnosia egiteaz gain (Kurtzebarri LH eta Kurtzebarri BHI-en), herria ere ikuspuntu honetatik aztertu dugu, eta Tokiko Agenda 21ari gure ekarpenak egin nahi dizkiogu.

Gai horiek lantzeko atal desberdinak aztertu ditugu: kaleetako argiztapena, udal egoitzen argiztapena eta berokuntza, etxeko energiaren erabilera, eta udalaren zein etxeko uraren erabilera.

Orain herriari dagozkion lan honen ondorio, proposamen eta konpromisoak azalduko dizkizuegu modu labur batean, gure artean adostu ditugun arlo bakoitzeko emaitza guztietatik lehentasuna beharko luketenak azalduz.

Lehen zikloan (Lehen Hezkuntzan) iazko proposamenen balorazioa egin dugu

Eskolan behaketa egin ondoren hau jaso dugu:

1. Geletako ate gehienak itxita egoten dira eta hartan saiutzen jarraitu behar dugu.
2. Argiak; behar ez ditugunean itzalita izaten ditugu.
Aurtengo fakturan argi-indar gutxiago gastatu dugula adierazten da.
3. Aldageletako atea itxita izaten gehiago saiatu behar dugu.
Dagoen berogailua gutxiegi da dena berotzeko.
4. Kanpoko ateetan lehen bait lehen tope bat jarri behar da, jolaslekuan gaudenean kanpotik atea ireki dadin.

Ondoren herriko kaleetatik ibili gara, argiteriari buruzko ikerketa eginez (iaz egin zen lanari jarraipena emanez).

Hauek dira emaitzak:

- Oraindik farola asko daude argia zerurantz botatzen dutenak (gutxigorabera 150 inguru).
- Ikusten da kale berrietan farola egokiak jartzen ari direla baina kale zaharretan oraindik desegokiak daudela. .
- Udalak neurri gogorragoak jarri beharko ditu iaz hartutako konpromezuak bete ahal izateko.

Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2.mailako ikasleok ere, zenbait kaletako farolak aztertu ditugu eta baita udal egoitzetako energiaren erabilera ere, berokuntzari dagokionez eta argiztapenari dagokionez. Hau ikusi dugu:

1) **KALEKO ARGIZTAPENA**

ONDORIOAK:

Otalora kalearen bukaeran, Santa kurtz kaleko parean dagoen bide-gorria, Herriko Plazan batzuk, Lausita auzoan eta Portasol auzoan jarrita dauden farola gehienak desagokiak dira, hau da: argia gora ematen dute. Nahiz eta horietako farola batzuk berriak izan, ez dute kontuan hartu hauek sortzen duten kutsadura luminikoa.

PROPOSAMENAK

- Pixkanaka farola desagokiak kentzen joatea eta horien ordean farola egokiak jarri edo horiek moldatu, hau da sistemaren bat jarri argia gorantz joatea ekiditeko.
- Horrez gain farola berriak jartzen baldin badira, eguzki plaken bidez dabiltzanak izan daitezela.

2) UDAL EGOITZEN ARGIZTAPENA

(Kiroldegia, udaletxea, kultur etxea eta liburutegia izan dira)

ONDORIOAK:

- Udaletxean argiak denbora gehiegi egoten dira pizturik (lan orduak) eta ez da kanpoko argia aprobetxatzen, leihoetan kortinak jarrita daude.
- Kiroldegian argi naturala asko aprobetxatzen da. Kantxan eta gimnasioan argi halogenoak daude.
- Udaletxean dauden bonbila gehienak normalak dira, ez daude kontsumo gutxikoak jarrita.
- Eguzki plakak, bakarrik kiroletxean eta eskolan daude.
- Komunetako argi-sisteman norberak itzali behar ditu argiak.

PROPOSAMENAK

- Argi naturala gehiago aprobetxatu (pertsianak igo, kortinak zabaldu,..)
- Argi gehiago behar den lekuetan fluoreszenteak erabili, eta garbi-garbi mantendu argia ondo aprobetxatzeko.
- Bonbilak aldatu eta kontsumo bajukoak jarri.
- Eguzki plakak jarri.
- Komunetan denbora batera itzaltzen diren argiak jarri.

3) BEROKUNTZARI DAGOKIONEZ:

ONDORIOAK:

- Hainbat eraikinetan berokuntza sistema desegokia dela ikusi dugu, alde batetik berokuntza sistemak zahartuta daudelako eta eraikinaren isolamendua ez delako egokia. Berogailuek sorturiko beroa ez da mantentzen.
- Bestalde, kultura etxean batazbesteko tenperatura 20°Ckoa baino altuagoa da.

PROPOSAMENAK

- Erradiadoreak erabili ordez, akumuladoreak erabili, %50 aurrezten dute eta.
- Udaletxeko atak eta leihoak aldatu neguan beroa gordetzeko eta kiroldegian isolamendu ona ipini.
- Orokorrean berokuntza sistema berriak jarri, ahal bada eguzki energian oinarritutako sistemak jarritz.
- Kiroldegi berria egiteko proiektua azkartu.
- Tenperatura aldetik, 20°ko tenperatura egokia da eta saiatu behar da tenperatura hori mantentzen.

5. eta 6. mailako ikasleok gure etxeko energia kontsumo jarrerak aztertu ditugu bost galderaren ingurunean eta datu hauek jaso ditugu:

- 1) Telebista, ordenagailua...erabiltzen ez ditugunean desentxufatu egiten dugu?
Gure ikerketaren arabera, familia erdiak desentxufatzen ditu tresna elektrikoak, baina oraindik ere jarrera hori hobetu egin beharko zen.
- 2) Berrerabiltzen (birkargatzen) diren pilak erabiltzen ditugu?
Inkestatutako laurdenak bakarrik erabiltzen ditu berrerabiltzen diren pilak, badirudi jendeak ez dituela ondo ezagutzen eta ez dituela erosten. Horregatik, ondo etorriko litzateke horien publizitatea gehiago egitea.
- 3) Hozkailutik zerbait hartu behar badugu "pentsatu ireki eta hartu" egiten dugu?
Jarrera honetan ere asko daukagu hobetzeko, izan ere, inkestako laurdenak bakarrik egiten du hori. Beraz, gure jarrera aldatu egin beharko da.

Bosgarren eta seigarren mailakoen jarraipena

4) Ahal den neurrian, elektrizitate gabeko tresnak erabiltzen ditugu eguneroko lanetan?

Datuek erakusten digute zaila dela eguneroko lanetan elektrizitatezko tresnak ez erabiltzea, baina saiatu egin beharko ginateke *hain beste elektrizitate ez erabiltzen*.

5) Egunez argia beharrezkoa denean bakarrik pizten dugu?

Erantzunak ikusita, familia askotan kontuan hartzen da noiz piztu behar den argia; hala ere batzutan oraindik ere hobetu egin beharko litzateke jarrera hori eta argia piztu bakarrik beharrezkoa denean.

D.B.H.ko 3.A eta 3.B taldeko ikasleok gure etxeko energiaren erabilera aztertu ondoren, honako ondorioak eta gure etxeko energia kontsumoa murrizteko proposamenak azalduko ditugu:

ONDORIOAK:

- Etxe guztietan erabiltzen diren energia motak elektrizitate eta gasa dira.
- Etxe asko ez daude ondo isolatuta leihoak kristal bikoitzekoak ez direlako edo zirrikiturik dutelako. Dena den, erdia baino gehiago ondo isolatuta daude.
- Etxe gehienetan termostatoa dago berogailua kontrolatzeko.
- Gehien erabiltzen diren argiak goriak izaten dira, lehendik jarrita daudelako eta kontsumo txikikoak garestiak direlako.
- Argi goriak kontsumo txikikoez ordezkaturik gero, aurrezte nahiko handia izan daitekeela ikusi dugu.
- Elektratresna gehienak ertaineko kontsumokoak dira (energia eraginkortasuna B,C,D)

KONPROMISOAK

- Energia edo elektrizitatea behar denean bakarrik erabili eta argi natural ahalik eta gehien erabili.
- Etxeko konponketak eginez gero isolamendua kontuan izan.
- Berogailua piztuta dagoen bitartean leihoak itxita eduki, eta termostatorik ez badauka, bakarrik behar denean piztu.
- Bonbilak erosiz gero kontsumo txikikoak erosi.
- Elektratresna berriak erosiz gero eraginkortasun handikoak erosi.
- Elektratresnak ez baditugu erabiltzen zeharo itzali, ezkutuko kontsumoa saihesteko.

URAREN ATALA

A) UDALAREN URAREN ERABILERA

B) HERRITARREN ERABILERA

UDALAREN URAREN ERABILERA

4.mailako ikasleok udal egoitzak, zenbait kaletako iturriak eta kale garbiketa aztertu ditugu.

1) UDAL EGOITZAK: Kirol etxea, udaletxea, kultur etxea, liburutegia, gazte bulegoa.

ONDORIOAK:

- Ur gehiena komunitan kontsumitzen da, baina, kirol etxean igerilekuan eta dutxetan ere.
- Komunitan ez dago aurrezteko sistemarik (bi botoiko zisterna).

PROPOSAMENAK

- Jendeak ur-kontsumo arduratsua izateko informazio kanpainak antolatu..
- Komunitako zisternak aldatu eta bi botoidunak ipini.

2) ITURRIEN EGOERA

Aretxabaletako hainbat kaletako iturriak aztertu ditugu: Araba ibilbidea, Markole, kirol etxekoa, Lausitako bi, San Miguel , Murubide, Basabe, Iturrigorri, Santa Kurtzekoa eta Otalerakoa.

ONDORIOAK:

- Konpondu beharrekoak ondokoak dira: Lausitako bat, Murubidekoa, Basabekoa, Santa Kurtzekoa eta Otalorakoa. Ur txorrota nahiko zakar ateratzen delako, eta beste batzuetan oso ur gutxi. Beraz, ura alferrik gastatzen da.
- Ondo ibiltzen direnak luzaroegi ateratzen dute ura.

PROPOSAMENAK

- Iturrien azterketa sakon bat egin eta gaizki funtzionatzen dutenak konpondu edo aldatu.
- Ur txorrotaren iraupena egokia ipini.

3) KALE GARBIKETA

ONDORIOAK:

- Herriko kale guztiak egunero garbitzen dira erratzez eta urez, baina erdiko kaleak asko sakonegi, batez ere jai egunetan.
- Garbitzeko ibilgailuaren ur kontsumoa nahiko baxua da (50 litro inguru), eta edatekoa da.

PROPOSAMENAK

- Gutxien zikintzen diren kaleak maiztasun txikiagoarekin garbitu. Adibidez, bi edo hiru egun astean, batez ere igandetan eta asteazkenetan . Neguan beharraren arabera maiztasun gutxiagoarekin garbitu.
- Ura tratatu gabekoa izatea.

D.B.H. KO LEHEN ZIKLOAN ETXEKO URAREN ERABILERA AZTERTU DUGU

Askotan ura konturatu gabe erabiltzen dugu. Izan ere, gure etxeetan bakoitzak bataz beste 115 litro ur kontsumitzen dugu ikasi dugu.

ONDORIOAK: -

Gastatzen dugun ur kopurua handia da.

KONPROMISOAK:

- Bainatu beharrean dutxatu egingo gara eta erabiliko dugun denbora beharrezkoa dena izango da..
- Urarekin ez dugu jolastuko
- Haginak edo eskuak xaboiarekin garbitu bitartean ur-kanila itxita izango dugu.
- Garbigailua beteta dagoenean jarriko dugu bakarrik
- Komuna ez dugu zakarrontzi bezala erabiliko.

Eskerrik asko!

